

Beste aditz laguntzaile ditransitibo bat Gipuzkoa mendebaldean: -ag- erroko formen jatorria eta garapena¹

*Another ditransitive auxiliary verb in western Gipuzkoa: the origin and
development of -ag- root forms*

Borja Ariztimuño Lopez*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena: Artikulu honetan Gipuzkoa mendebaldeko hizkeretan baizik ageri ez den aditz laguntzaile batez arituko naiz (adib. Otxoa Arinen *diago* ‘dio’), bi helburu nagusirekin: batetik, lehen aldiz forma dokumentatu guztiak sailkatzea (orain arte identifikatu ez diren zenbait barne), eta bestalde, adizki horien eta orobat gutxi aztertu diren Lazarragaren *jago* ‘dio’ erakoen arteko harremana argitzea, guztien sorreraren eta garapenaren gaineko proposamen bat eginez. Hala, testuen azterketa filologikoa eta barne-berreraiketa baliatuz ondoriozta daiteke ezen Araba ipar-ekialdeko eta Debarroaren inguruko euskaran **edun*-en forma ditransitibo bereziak garatu zirela, zeinek bilakaera fonologiko baten ondorioz -ag- erroa erakusten duten, eta betiere 3. pertsonako datibo-komunztadura.

Hitz gakoak: aditz laguntzaileak, ditransitiboak, Gipuzkoa mendebaldeko euskara, Arabako euskara, filologia

Abstract: In this paper I will deal with an auxiliary verb that appears only in the varieties of western Gipuzkoa (e.g. Otxoa Arin’s *diago*), with two main goals: on the one hand, to make the first classification of all the documented forms (including some previously unidentified ones), and on the other, to establish the relationship between these forms and the equally little studied ones of Lazarraga’s *jago* type, presenting a proposal on their origin and development.

¹ Ikerketa hau «Lingüística histórica e historia de la lengua vasca» [IT1344-19] ikerketa-talde iraunkorraren (EJ) eta «Monumenta Linguae Vasconum V» [FFI2016-76032-P] proiektuaren (MICINN) barnean egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiet Ricardo Gómezi, Dorota Krajewskari, Oxel Uribe-Etxebarriari eta Eneko Zuloagari zenbait datu eta testu eskuratzen laguntzeagatik; baita berriusle anonimoei ere, haien iruzkinengatik. Diratekeen akatsak oro, jakina, nireak baino ez dira.

Thus, through the philological study of the texts and internal reconstruction, it can be concluded that in the Basque language of the northeastern Araba and the Deba basin, characteristic ditransitive forms of the verb **edun* developed which historically show a root *-ag-* and always agree with the third person dative.

Keywords: auxiliary verbs, ditransitives, western Gipuzkoan, Alavese, philology

1. Sarrera

Artikulu honetan orain arte ongi deskribatu gabeko aditz laguntzaile batez arituko naiz (*-ag-* erroa erakusten duten formak), bi helburu nagusirekin: batetik (§2), dokumentatu diren adizki guztiak biltzea eta sailkatzea, eta bestalde (§3), haren sorreraren eta garapenaren gaineko proposamen bat egitea (Ariztimuño, 2021a lanaren ildotik).

Izan ere, testu eta lekukotza ezberdinetako forma guztiok ez dira lehenago aztertu, eta aipatu izan direnak ere ez dira elkarrekin lotu; hau da, inork ez ditu adizki guztiak identifikatu, ezta ezagurikoak aditz beraren aldaeratzat hartu ere. Ondorioz, ez zaio arreta nahikoa eskaini adizki bereziora, eta haien hedadura zehazteke egon da.

2. Adizki berezi batzuen hatzean²

Beste lan batean (Ariztimuño, 2021a), Lazarragaren *ñagon* ‘nion’ adizkia (1)³ eta haren paradigma aztertu ditut, lehenik irakurketa horixe (eta ez Bilbao eta besteren [2020] <nagon>) defendatuz,⁴ eta ondoren bere testuinguru paradigmatico eta diatopikoan kokatuz, egundaino gorde diren Oñatiko *xao* ‘dio’ eta Antzuola-Bergara aldeko *jao* ‘dio’ erako adizkiekin lotuz, lehenago Lazarragak berak darabiltzan *jago* ‘dio’ (2) erako beste adizkiekin hainbatek egin bezala (cf. Uribe-Etxebarria, 2008; Zuazo, 2012; Aldai, 2013).

² Artikuluan zehar adizkiak baino ez ditut aipatuko gehienetan, haien euskara batuko ordainarekin batera; adizkiok beren testuinguruan eta sailkatutik ikusteko, jo beza irakurleak 1. eta 2. eranskinetara.

Bestalde, testuan zehar nahiz eranskinetan laburdura hauek erabili dira testuak aipatzeko: AmilD = Amilletaren dotrina, 1677 (Arejita & Alberdi, 1983); AnzD = Antzuolako dotrina, 1825 (Uribe-Etxebarria 2008); AzkOr = Azkoitiko ordenantzak edo Sumario brebea, 1614 (Urkizu, 2009); AzkS = Larramendiren Azkoitiko sermoia, 1737 (Lakarra, 1985); AzpGut = Azpeitiko gutunak, < 1740 (Madariaga eta beste, 2009); BK = Bretainiako kantua, 1590 (Sarasola, 1983: 78); DebS = Debako seroraren gutuna, 1596 (Satrustegi, 1987: 31-34; Gidor Bilbao, Joseba Lakarra eta Dorota Krajewska prestatzen ari diren edizioko zuzenketak kontuan harturik; ElgB = Domingo Irureren Elgoibarko bertsoak, 1677 (Azpiazu, 1988); ErrGut = Errezilgo gutunak, 1622 (Sarasola, 1983: 124-128); Laz = Lazarraga, ca. 1600 (Bilbao eta beste, 2020); LD = Loiolako dotrina, ca. 1750 (Altuna, 1995); OA = Otxoa Arinen dotrina, 1713 (Oregi, 1972; Altuna, 1992; Aranburu, Bidegain, Idiakez, eta Rezola, 1999); RosGut = Ros erronkariarraren gutunak, 1616-1617 (Gidor Bilbao eta Joseba Lakarra prestatzen ari diren edizioa kontsultatzeke aukera izan dut); Sas = Estibaliz Sasiola, ca. 1600 (Bilbao eta beste, 2020); SGK = Segurako gabon-kantak, 1705 (Lekuona, 1954); EKC = *Euskal Klasikoen Corpusa* (EHU).

³ Testuan aipatutako adibideek zenbaketa-hurrenkerara aruntari jarraitzen diote, nahiz eta eranskinetan berriz agertzen diren, bertan dagokien zenbakiarekin.

⁴ Esan nahi baita, adizki hori *ñ-z* interpretatzeko argudio linguistikoak ez ezik, <ñ> irakurtzeko grafiazko frogak aurkeztuz.

- (1) *Egun ascotan nic eguin ñagon / modu ascotan erregua* (Laz, A21, 5-6)
 (2) *Semeric badeu esaten jago: / "Aita, eguidac jaquea"* (Laz, A24, 99-100)

Halaber, adizkion osaera azaltzeko saio batzuk laburbildu eta, behin-behinean, Lafonek (1961: 427) Oñatiko eta Bergarako formetarako proposatutako etimologiarekin bat egin dut, xehetasunak xehetasun.

Labur azaltzeko, ikuspegi horren arabera, adizkiok **edun*-en forma ditransitiboak dira, oinarrizko *dau* formari hasierako morfemaren palatalizazio-bidezko datibo-marka eta amaieran 3. pertsonaren datibo-komunztadura erantsiz sortuak: **djau-o* > **jawo* > *jao*.

Oraingo honetan, baina, lekukotasun gehigarri batzuk aurkeztuko ditut, sarreran esan bezala, inoiz lehenago aztertu edo arestian aipatu ditudanekin lotu izan ez direnak.

Hala, Lazarragaren *ñagon* adizkiak *jago* erakoak aztertzeraz eraman nauen bezala, Otxoa Arinen *diagola* ‘diola’ (3) adizkia izan da ikerketa-saio honen abiarazlea.

- (3) *escatcen diagola Jaungoicoari* (OA, 132)⁵

Adizki hori (hurrengo azpiatalean aipatuko ditudan bezala) ez dut ezein ikerketatan aztertua ikusi, autorearen beraren adizkien sailkapenetan izan ezik, eta haietan oker azterturik edo sailkatuak beti (cf. 2. oin-oharrean aipaturiko bibliografia eta Dodgson, 1913⁶).

2.1. -g-dun adizki ditransitiboen corpora zedarritzen

Gorago esan bezala, Bilbao eta bestek (2020) *jago* eta *digo* ‘dio’ erako adizkiak parekatzen dituzte, aldaera gisa nonbait. Alabaina, ediziozileek aipatzen dituzten testuetako batzuetan (AzkOr, LD, OA) ez dira *digo* erakoak soilik ageri, baizik eta *jago*-ren antz handiagoa duten

⁵ Hona hemen pasarte osoa, non bidenabar ikus baitaiteke objektu pluralarekiko komunztadurarik eza aztergai dugun adizkian:

Aciertua conseguiteco gauza importanciazco onetan, conveni izango zayo Christaubari bere bacartasunera retiraturic oracio eguitea, eta exercicio santu orretan egunen batzuec, edo gauren batzuec empleatcea, aldian bein edolarican ordubat, edo orduerdi bat egunean, edo gaubean bere aldera artuaz, *escatcen diagola Jaungoicoari* aldeban humildaderic andienaz, Fedez, eta esperantza firmeaz, bere socorru divinoac, eta hasistenciaric andienac, aen medioz ecarri ditzan memoriara bere culpa eta pecatuen numeroa, eta circunstancia guciac, batere ezcutaduric guelditu ez daguicoan moduan (OA, 131-132; letra beltza eta etzana nireak [BAL])

⁶ Honela dio ikertzaile ingelesak: “*Diagola* 59, is possibly meant for *dagoala* without dative or accusative, leaving these to be understood from *escatcen*” (Dodgson, 1913: 243).

eta, dakidala, inork lehenago elkarrekin lotu ez dituen beste batzuk: *diago* ‘dio’ erakoak (ikus 1. eranskineko 16-19 eta 31-32 adibideak).

Aipatzekoa da ezen testuon transkripzio, edizio eta azterketa bakoitzean ere ez direla besteetan ageri diren *diago* erako forma bereziak aipatzen, eta gehienek *di(g)o* erakotzat hartu izan dituztela, esplizituki edo haiekin batera emanik zerrendan (zalantzaz bada ere; cf. Aranburu eta beste, 1999: 102). Fidel Altunak, aldiz, **eradun*-etik erator zitezkeela planteatu zuen, tarteko *diau-* formen bidez (Altuna, 1995: 623).

Azken proposamen horri dagokionez, ordea, egileak berak ikusi zuen ezen berak aztergai zuena objektu singularrarekiko **eradun*-en adizki bakarra litzatekeela gipuzkeraren corpus osoan:

arazoaren irtenbidea *-iau-* (< *-irau-*) erroa daraman forma batetik abiatzea izan zitekeen, objektu singularraz gipuzkeran halako beste ezer ez izatea oztopo larria ez balitz: *diraue* > *diaue* > *diague* > *digue* (Altuna, 1995: 623).

Jakina, artikuluan honetan objektu singularreko adibide gehiago aurkezten dudanez gero, batek pentsa lezake Altunak aipatzen zuen forma ez zatekeela horren ezohikoa; haatik, *ja-* hasieradun adizki zaharren paralelismoak eta pluraleko formetan luzaro *-r-a* gorde izanak zailtzen bide du, hain zuzen, haiekiko lotura.

Era berean, bilakaera horren azken pausoa (*dia-* > *di-*) garai horretan (ca. 1750) egiantzekoa izan baliteke ere,⁷ kontuan hartu behar da *digo* erakoak XVI. mendetik daudela dokumentaturik,⁸ eta XVII. mendearen hasieran ere *diago* eta *digo* formak ageri direla. Altunaren proposamenera itzuliz, badirudi LDko *digue* ‘die’ adizkiko azken zatia bi silabakotzat hartzen duela (/di.gu.e/), baina autoreak berak berariaz baztertzen du *digoe* > *digue* aukera ere, *digue* ‘digute’ formarekin nahastuko litzatekeela-eta, bai eta, agidanez, *oe* > *ue* aldaketa ez zatekeelako gertatu (testuan

⁷ Ordurako (XVIII. mendearen hasieratik) aditz laguntzaileon forma aski higatuak bazirelako zantzu argiak baitaude; cf. 1716ko Lasarteko bertsoetako *diuscu* ‘dizkigu’ (Satrustegi, 1983), Irazustaren testuan *-iu-* erakoak arau, bai eta Otxoa Arinen *diutzudan* higatua, nahiz eta horretan *dirautzut* osoa ere ageri den. Izan ere, ia osoak dira Larramendik bere gramatika jaso zituen *diauizat* ‘dizkiot’ etab. (1729: 116) eta hiztegian, Azpeiti-Azkoitiko hizkerez aritzean, *dirautzat* ‘dizkiot’ eta *dirauzkit* ‘dizkit’ “bereziak” aipatu zituen (1745: 30); halaber, AzpGut-etan *dirauzan* ‘dizkion’ aurkitzen dugu.

⁸ Baita ekialderago ere (ikus 1. eranskineko 14-15 adibideak).

ez da halakorik). Izan ere, AzkOr-etan ere dokumentaturik daude *dige* ‘die’⁹ eta *diage* ‘die’¹⁰ (1. eranskineko 11 eta 18 adibideak).

Hortaz, badirudi hiru forma bereizi behar direla, gutxienez: *jago*, *diago* eta *di(g)o*.

Amaitzeko, lehenago inon aipaturik ikusi ez ditudan forma berezi batzuk ere bildu ditut, zeinak *jago/diago* erakoen alokutiboko formak direla uste baitut: alde batetik, Bährren, Irizarren eta EHHA dialektologia-lanetako Elgoibarko eta Legazpiko formak ditugu (3. eranskineko iii. eta iv. taulak); bestetik, SGKetako *zegoat* ‘zioat’ eta *zego* ‘ziotek’ (41-42).

2.2. Formen sailkapenaz gehiago

Ikusi den bezala, testu zaharrenetatik *di(g)o*, *diago* eta *jago* erako adizkiak ditugu, maiz horietako bi autore beraren testuan (*diago/di(g)o*, *jago/dio*, baina ez ***diago/jago*).¹¹ Zalantza egin liteke *digo* non sailkatu (*dio*-rekin ala *diago*-rekin), baina, datuen argitan, orain arte egin den bezala, *dio*-ren aldaeratzat jo dut hemen.


Izan ere, *diago* eta *digo* aldaeratzat hartzeak arazo kronologiko eta diatopikoak lituzke: datu urriek marrazten dituzten isoglosek iradokitzen dutenez, bazen gune bat non *jago* (eta *dio*) erabili zen; ondokoetan, *diago* (eta *di(g)o*; cf. OA, AzkOr, LD); eta, lehen eremutik urrutien, *di(g)o* baizik ez.¹² Honako mapa honetan argiago ikus daiteke *-g*-dun lekukotasun guztien banaketa (RosGut-ekoak salbu):

⁹ Testuak baditu zenbait arazo interpretazioan (eta ziurrenik transkripzioan). Oro har grafia eguneraturik ageri bada ere, badu grafia zaharraren adibiderik, eta <digue> izan liteke bat, beharbada edizioegileak /gu.e/ interpretatu zuelako; beste aukera bat litzateke egiazki /gue/ < /goe/ izatea (nahiz eta halako beste bokal aldaketarik ez den testu osoan), edo bestela <u> *pro* <o> akatsa, eta beraz, egiazki <digoe> irakurri behar izatea. EKCaren arabera, XIX. mendera arte (Agirre Asteasukoaren eta Klaudio Otaegi zegamarraren testuetan) ez da beste *dige*-rik agertzen, baina, ikusi dugunez, LD-n ere bada.

¹⁰ *Diago* erako adizkiek sortutako harriduraren eta nahasmenduaren beste erakusgarri bat dugu Fidel Altunak adizki honez dioena: “Adiera berekoa da halaber, **hutsa ez bada**, erantzun honetan bertan beherago den *diaguenac* ‘dienak’” (Altuna, 1995: 640, 118. oin-oh.; nabarmentzea nirea).

¹¹ Bildutako aldaera guztiak hobeto kokatzeko, ikus 1. eta 2. eranskinak.

¹² Kontuan hartu behar da *dio* inoiz orokorra zatekeela eta han-hemenka kontsonante epentetikoa garatu bide zuela; bereziki arestian aipatu Gipuzkoako alderdian, baina baita handik kanpo ere, RosGut testuak erakusten duen bezala.



1. irudia: -g-dun adizkien banaketa diatopikoa

3. Ondorioak

Honenbestez, azalpen ekonomikoena bi adizki multzo bereiztea dela pentsatzen dut: alde batetik *-i(n)-* errodunak (*di(g)o*) genituzke,¹³ eta bestetik, **edun* erroaren forma datiboduntzat jotzen ditudanak (*diago*, *jago*), Ariztimuño (2021a) artikuluan *jago*-rentzat proposatutako etimologia *diago* aldaerara hedatuaz.

Lehendabizikoen kasuan (4), batik bat Deba ibarreko hizkeretan, baina baita hortik kanpo ere (cf. RosGut), *-g-* epentetikoa sartu zen 3. pertsona singularreko datibo-komunztadura zuten adizkietan, eta toki batzuetan (Azkoitia-Azpeitia inguruan, adibidez) pluralekoetan ere bai, beharbada analogiaz.¹⁴ Bigarren multzokoen kasuan (5), aldiz, **edun*-en 3. pertsonako datibo-komunztaduradun formak ziratekeen, Araba ipar-ekialdetik Debagoiena bitartean (Ariztimuño,

¹³ Lakarra (2008a: 479-482) lanaz geroztik ez baita zalantzarik halakoak ez direla **edun*-etik eratorriak, baizik eta **enin* ‘eman’ berreraiki genezakeen aditzetik.

¹⁴ Epentesi bera dakusagu Mendibururen lanetan (EKC) eta Larramendiren gramatikan, **ezan* laguntzailearen formetan: *diezagón*, *ciezagón*, etab. (Larramendi, 1729: 114).

2021a) eta, aldirietan, Goierri mendebaldetik Azkoitia eta Elgoibarreraino erabiltzen bide zirenak:

(4) *dio* > *digo*
die → *dige*

(5) **da(d)u-* → **djau-o* > ... > **djago* > *jago*, *diago*¹⁵
(→ *jage*, *diage*)
**ne(d)u-*¹⁶ → **njeau-o(-n)*¹⁷ > ... > **njagon* > *ñagon*

Bilakabide morfofonologikoari dagokionez, Ariztimuño (2021a)-ko proposamenean sakonduz, erroaren aurreko zatia eta ondokoa bereizi behar dira, bai kokalekuagatik eta parte hartzen duten morfemengatik, bai horien kronologia erlatiboagatik ere.

Erroaren ostekotik hasita, ditugun lekukotasunetatik ezin dugu zehaztasun handiagorik atera, baina badira bi aukera, gutxienez: i) **-au.o* > **-augo* > *-ago*; ii) **-a.wo* (> **-abo* > **-a.o?*) > *-ago*. Datibo-pluraleko formak azaltzeko lehen bideak dirudi egiantzekoena, baina izan litezke singularrekoekiko analogiaz sortuak ere.

Erroaren ezkerretara gehitu den morfologiazko ekaiari dagokionez, berriz, bi modutara azal liteke (bien arteko muga lausoa bada ere): edo maila morfosintaktikoan gertatzen zen argumentu-gehiketa (*dator* → *datorkio* bezala), edo lexikalizaturiko oinarri baten gainean eratzen ziren adizkiak (**eradun*-en adizkien modura; cf. Mounole, 2015); demagun, **jadun* moduko partizipio batetik (cf. Lazarragaren *jagin* bera). Edonola ere, iraganeko forman ere ageri den *a-* azaltzeko beharrezkoa da **da-* morfema edo haren arrasto morfofonologikoa, (5)-

¹⁵ Lan honetan ez naiz sartuko *j-~di-* (eta *ñ-*) horien jatorri eta garapen fonetiko zehatza zein den (ikus Ariztimuño, 2015); analogiaz ere sor zitezkeen forma berriak.

Dena den, gogoan eduki behar da mendebaldean orokorra dela *joat* ‘diat’ (eta cf. Oñatin eta Bizkai hegomendebaldean erabiltzen den iraganeko *ñoan* ‘nian’); halaber, Gipuzkoako testuetan ez da ezezaguna *da-* → *dia-* baliabidea (esaterako, Otxoa Arinen *badiakit*, Lubietaren *diaramaio* edo Larramendiren *diakart*; ik. Ariztimuño, 2021b).

Hortaz, har bitez **dj-* eta **nj-* berreraiketak adizkien hasierako kontsonanteak aldarazi zituen elementu palatal baten presentziaren konbentziozko adierazle huts gisa, eta ez bilakaera fonetiko zehatzaren proposamentzat; are gutxiago *diago* erakoen zahartasun erlatibo handiangoaren aldekotzat.

¹⁶ Berrikusle anonimoetako baten ustez, mendebaldeko euskara zaharrean jada **neb-* zatekeen forma komuna (*RSko neuen* eta Martin Portalen *neuan*, esaterako, ez dira argiak, bokalarteko <u> batek /b/ ere adieraz baitzezakeen testu haietan) eta, hala izatera, (5)-eko berreraiketa oztopatuko luke.

Haatik, eta aurrerago aurkeztuko ditudan bestelako azalbideak (analogia, partizipio berria) alde batera utzirik, nago ez ote dugun orobat **neu-*tik abiatu behar mendebaldeko euskararen barneko *neban/neben* banaketa azaltzeko, bigarrena **neu-(e)n* berreraikirik (alegia, *-an* → *-n* alomorfo aldaketaz eta horren ondoko bokal epentetikoaz).

¹⁷ Ikus aurreragoko azalpenak erro-aurreko bokalez.

eko **njeau*-n islatzen den bezala (cf. *jakan* ‘zitzaion’ bera; eta, *RSko bagineakike* ‘bagenekike’ eta kidekoez, Mitxelena, 1954: 132-133).

Adizkien eskuinaldera itzuliaz, eta lexikalizaturiko aditz batean pentsatuz gero, epentesia forma jokatugabeetan sor zitekeen (**jadun* > **ja.un* > **jagun*),¹⁸ eta hortik adizki jokatuak *-*agu.o* > *-*agwo* > -*ago* bilakaera izan; alabaina, formon hedadura murrizak eta aldaerek pentsarazten didate berrikuntza (zahar) lokal baten aurrean gaudela, eta ez ondare zahar komuneko partizipio baten forma jokatuaren aurrean.¹⁹ Kontuan hartu behar da, dena den, tartean diren bilakabide morfofonologikoak antzinakoak direla (beharbada komunak, aurrizkiak direnez) eta herri batzuetan hitano alokutiboko formetan irauin dutela (izan ere, datibo- eta alokutibo-komunztaduraren arteko loturaren beste adibide bat da).

Horrenbestez, esan liteke ezen, zedarritutako eremu hartan,²⁰ noizbait **edun*-en 3sg pertsonako formaren gainean datibo-gehitzeko bideak erabiltzen hasi zirela; ordea berrikuntzak ez bide zuen arrakasta handiagorik izan eta, geografian ez ezik, paradigmaren ere ez zatekeen osoki hedatu.

Postscriptum

Artikulu amaiturik zegoela, 1515 inguruko Azkoitiko poemen (AzkPo) aurkikuntzaren berri jakinarazi zuten hedabideetan. Testu hartan, ediziozileek <Vitar-teco em(an) ni[...]gon> transkribatu duten pasarte iluna ageri da, zeina <Vitar-teco em[en] ni[a]gon> zuzendu eta osatzea proposatu duten, ‘bien bitartean hemen nagon [noka]’ ulerturik (Ros, 2020).

Testuaren azterketa sakonago bat beharrezko bada ere, baliteke egiazki artikulu honetan hizpide izan dugun aditz laguntzailearen zorioneko beste lekukotasun bat izatea azken hitz hori; areago, Lazarragaren *ñagon* adizkirako proposaturiko berreraiketarekin (**njagon*) bat letorkeen eta *jago* : *diago* bikotearen argitan Azkoitian esperoko genukeen forma lekukotzen du, hain zuzen: *niagon*.

Hortaz, nire proposamena da AzkPo-ko lekukotasuna <Vitar-teco eman nj[a]gon> (‘bitarteko eman nion’) osatzea, non *bitarteko* hitza ‘(zerbait lortzeko) bide’ gisa ulertu behar bide den;

¹⁸ Lakarrak *ezagun*-en etimologian proposatzen duenaren antzera: *ezagun* < *eza.un* < **ezadun* < **e-da-zun* (Lakarra, 2008b: 330, 87. oin-oh.; Lakarra, Manterola & Seguro, 2019: 206-207, s.v. *ezagun*). Eta cf., agian, Damaso Intzak Dorraon entzundakotzat jasotako *egon* ‘ukan’ < **edun* (*apud* Mitxelena, 1958: 229).

¹⁹ Halaber, berrikusle anonimoetako batek adierazi didan moduan, adizki laguntzaileok zuzenean **jadun* edo **jagun* aditz zahar batetik gramatikalizatu balira, testu zaharretan haren erabilera trinkoren bat agertzea espero genezakeen, gainerako hiru laguntzaile ditransitibo zaharragoen kasuan bezala (**edutsi*, **enin*, **eradun*; cf. Mounole, 2015).

²⁰ Berrikusle anonimoetako batek markatu bezala, testuek erakusten duten hedadurak berrikuntzaren sorburua Gasteiz izan zela pentsaraz dezake.

kasu honetan, penitentzia betetzeko edo ezartzeko modua izan liteke, testua nola interpretatzen den (esaldia ez baitago osorik).

5. Bibliografia

- Aldai, Gontzal. 2013. Sasiola vs. Lazarraga: Acerca del euskera del texto de Estibaliz Sasiola. *Lapurdum* 17. 7-29. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2400>.
- Altuna, Fidel. 1995. Loiolako dotrina (XVIII. mendea). *ASJU* 29(2). 611-649.
- Altuna, Patxi. 1992. Ochoa de Arin-en *Doctrina Christiana*-ren (1713) hizkeraren laburpena. *Euskera* 37(1). 573-589.
- Aranburu, Pello Joxe, Marian Bidegain, Antton Idiakez & Iñaki Rezola. 1999. *Jose Otxoa Arin (1672-1743) gipuzkera literarioaren aintzindari (VIII. Gerriko ikerlan-sariketa)*. Lazkao: Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia & Lazkaoko Udala.
- Arejita, Adolfo & Mirari Alberdi. 1983. Amilletaren dotrinea. *Litterae vasconicae* 3. 9-68.
- Ariztimuño, Borja. 2015. Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuek (euskal aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz. In Ricardo Gómez & Maria Jose Ezeizabarrena (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, 117-140. Bilbo: UPV/EHU.
- Ariztimuño, Borja. 2021a. Lazarragaren eskuizkribuko <nagon> adizkia: grafia-kontu bat baino gehiago. *Uztaro* 118. 81-92.
- Ariztimuño, Borja. 2021b. Garibairen errefracuetako *diago*: euskara, zakurrak, eta ustekabeko beste etimologia batzuk. *FLV* 131. 47-59. <https://doi.org/10.35462/flv131.2>.
- Azpiazu, Jose Antonio. 1988. Palabras y textos vascos antiguos. *Eusko Ikaskuntza: Hizkuntza eta Literatura* 7. 7-14.
- Bähr, Gerhard. 1927-28. Estudio sobre el verbo guipuzcoano. *RIEV* 17 eta hh.
- Bilbao, Gidor, Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole & Blanca Urgell. 2020. *Lazarraga eskuizkribuaren edizioa eta azterketa*, 2 lib. Bilbo: UPV/EHU.
- Bonaparte, Louis-Lucien. 1869. *Le verbe basque en tableaux* (Berrargit. faksim. *Opera omnia vasconice*, 1. lib., 221-242. Bilbo: Euskaltzaindia, 1991).
- Dodgson, Edward Spencer. 1913. An analytical and quotational index to the 353 forms of the verb which occur in the catechism of J. Ochoa de Arin. *Hermathena* 17(39). 219-243.
- Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). d.g. *Euskal Klasikoen Corpora (EKC)*. <http://www.ehu.eus/ehg/kc/> (2020/12/07).
- Euskaltzaindia. 2014. *Euskal Herri Hizkeren Atlas* [EHHA], 4. lib. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Irizar, Pedro. 1991. *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*. Bilbo: Euskaltzaindia.

- Irizar, Pedro. 1992. *Morfología del verbo auxiliar vizcaino*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lafon, René. 1961. Sur les formes verbales basques qui contiennent un indice datif (Berrargit. in Jean Haritschelhar & Piarres Charritton (arg.), *Vasconiana (Iker 11)*, 411-420. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999).
- Lakarra, Joseba A. 1985. Literatur gipuzkerarantz. Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737). *ASJU* 19(1). 235-281.
- Lakarra, Joseba A. 2008a. Aitzineuskararen gramatikarantz: malkar eta osinetan zehar. In Xabier Artiagoitia & Joseba Andoni Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan. Patxi Goeneagaren omenez (ASJUren Gehigarriak 51)*, 451-490. Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A. 2008b. Temas para un prólogo: Forma canónica, tipología holística diacrónica y reconstrucción del protovasco. *Oihenart* 23. 277-347.
- Lakarra, Joseba A., Julen Manterola & Iñaki Seguro. 2019. *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Larramendi, Manuel. 1729. *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latin*. Donostia: Bartholome Riesgo y Montero.
- Lekuona, Manuel. 1954. Gabon-kantak. *Egan* 5-6. 9-44.
- Madariaga, Juan, Jose Antonio Azpiazu & Jerardo Elortza. 2009. XVIII. eta XIX. mendeetako Azpeitiko euskal testu batzuk. *FLV* 110. 5-45.
- Mitxelena, Koldo. 1954. Nota sobre algunos pasajes de los *Refranes y Sentencias de 1596* (Berrargit. in Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas XI (ASJUren Gehigarriak 54)*, 131-139. Donostia & Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 2011).
- Mitxelena, Koldo. 1958. Introducción (Berrargit. in Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas XII (ASJUren Gehigarriak 55)*, 202-232. Donostia & Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 2011).
- Mounole, Céline. 2015. Datibo-komunztaduraz eta laguntzaile hirupertsonalen diakroniaz. In Beatriz Fernández & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*, 473-490. Bilbo: UPV/EHU.
- Oregi, Josu. 1972. Otxoa-Arinen 'Doctrina' — (1713). *FLV* 12. 353-370.
- Ros, Ander. 2020. Ene laztan gozo ederra... Filologia azterketa. [online]. <http://oinati.gipuzkoakultura.net/eu/kontserbaturiko-dokumentuak/26/219.html> (2020/12/07).

- Sarasola, Ibon. 1983. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. *ASJU* 17(1). 69-212.
- Satrustegi, Jose Maria. 1983. Lasarteko bertso paper zahar bat (1716). In *Euskaltzaindia* (arg.), *Piarres Laffiteri omenaldia* (*Iker* 2), 571-581. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Satrustegi, Jose Maria. 1987. *Euskal testu zaharrak* (*Euskararen Lekukoak* 13). Iruñea: Euskaltzaindia.
- Uribe-Etxebarria, Oxel. 2008. Euskerazko doktrinia Anzuelako berba moduan (1825). *ASJU* 42(2). 139-209.
- Urkizu, Patri. 2009. Un texto olvidado del siglo XVII. ‘Sumario Brebea...’ (Azkoitia, 1614). *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca* 14. 207-217. <https://doi.org/10.5944/rllcgv.vol.14.2009.5949>.
- Zuazo, Koldo. 2012. *Arabako euskara*. Donostia: Elkar.

Eranskinak

1. eranskina: adizkiak bere testuinguruan²¹

-ig- < **-i(n)-**

< 1625

- (1) *Guztioec digoe borondatez seguicen* (BK, 3)
- (2) *Abbate guztiac daode procisioan / Mila bendicio egozten digoela* (BK, 1)
- (3) *he[n]y eun ecj egina[ga]tj bida[l]du h[e]çtjgot* (DebS, 2)
- (4) *baja eçtygot e[u]çjco argatjc çure mesedeori serujceary* (DebS, 6)
- (5) *çure mesedeor[r]j sup[l]icacen djgot* (DebS, 9)
- (6) *Neuronec esin neyo, baya / eguingo digot mandatu* (Sas, B27:18)
- (7) *çure laztan ni banari, / contu estua emango digoçu / Ceruetaco Jaunari* (Sas, B28:13)
- (8) *berak eta bere ese guztiak ofrezizen digoela egunean bein oraziorean bazuk* (AzkOr, 1/5/3)
- (9) *eta memorian gorde debozio emaiten digon puntu batreanbat* (AzkOr, I:8/2)
- (10) *Faltazen dauenak Kongregazioko Junta señaladuetan esan bear digoe Aytari edo perfectuari kausea* (AzkOr, II:15/1)

²¹ Eranskin honetan -g- kontsonante epentetikoa duten 1625 arteko lekukotasun guztiak bildu ditut; bai -i(n)- errokoak, bai **edun* erroko datibodunak (**jadun*). Horiez gain, orain arte bildu gabe egon direnez eta haien berezitasuna dela-eta, 1625etik aurrerako **jadun*-en adizkiak ere jaso ditut jarraian.

Bestalde, lan honetan ez dut Garibairen *diago* aipatu, litekeena delako beste erro batetikoa izatea (ikus Ariztimuño, 2021b).

- (11) *emango **digue** abisoa, ta reprehensioa, eta bayta Kongregaziotik atera tempora señaladurean baten* (AzkOr, II:15/3)
- (12) *eta ainbat lasterren guziak komulgadu bitezke, Jaungoikoari erreguzen **digola**, aren arimea gatik* (AzkOr, II:17/6)
- (13) *eta ezteve porfiadu bear baña bai esan euren parezera eskazen **digonean** lanezarekin, eta beste guzien* (AzkoOr, II:18/5)
- (14) *erran **digot** eguin // deçan informaçiona, erraten duçun viçala* (RosGut-14, 1r:27)
- (15) *non errayten baytu (...) nola Eliseo / profetac (...) erran **çigon*** (RosGut-15a, 1r:23)

-ag-

< 1625

- (16) *espezialmente gerra geyago egiten **diagon** pekatuaganik* (AzkOr, I:6/2)
- (17) *eztakianari irakasten **diagola*** (AzkOr, I:12/6)
- (18) *Gustiok obedezidu bear deve Kongregazioak determinazen devana; eta Aytak edo Perfectoak enkargazen **diagena*** (AzkOr, II:13/4)
- (19) *eta aren abisuak aprobetxatzen ezpadeu esango **diago** Kongregazioko Aytary* (AzkOr, II:19/3)
- (20) *itaundu **ñagon** poridadean / beste donzella bateri* (Laz, A7:71)
- (21) *Egun ascotan nic eguin **ñagon** / modu ascotan erregua* (Laz, A21:5)
- (22) *çaguita çorroz bat ifini **ñagon** / berar gaxtoaz ganchitua* (Laz, A21:17)
- (23) *bere cençuna ifini **ñagon** / promesa ascoz pobladu[a]* (Laz, A21:25)
- (24) *Erançun **ñagon**: “Ni noçun guero (...)* (Laz, B21:97)
- (25) *inori emun **bajagot** bere, / ez nago damu jaquinic* (Laz, A23:59)
- (26) *Jaun Cerucoay emaiten **jagot** / oy asco gueraciaric* (Laz, A23:1)
- (27) *Gabetan barriz ez **jagot** joco / laztanai biguelea* (Laz, A24:17)
- (28) *ez gueiago ez **jagot** joco / contereagaz atea* (Laz, A24:23)
- (29) *Juramentu eguiten **jagot** / obian daçan amari* (Laz, A27a:39)
- (30) *Semeric badeu esaten **jago**: / “Aita, eguidac jaquea”* (Laz, A24:99)

1625 <

- (31) *edo gaubean bere aldera artuaz, escatzen **diagola** Jaungoikoari aldeban humildaderic andienaz* (OA, 132)
- (32) *P. Ceñec onrracen ditu aita eta ama? R. Obedecicen diguenac, eta nesesidadean socorricen dituanac, eta bear dan reverencia ecarten **diaguenac*** (LD, 22)

- (33) *p. cegati da glorificadorea. r. cerren vere gracion ilten diranai emoten **jaguen** gloria* (AmilD, 3)
- (34) *p. guztia²² aurpegui modubat ecusico **jagoe**. r. ez jauna viciaq aleguerea ta ilac aserrea* (AmilD, 6)
- (35) *Orregatic erregutzen **jaot** Santa Maria beti Virgiñari (...)* (AnzD, 8r)
- (36) *Bai, Jauna, Escritura sagraduan daguana eta Jaungoicuaq Eliziari rebeladu **jaon** guztian* (AnzD, 19r)
- (37) *Cer oracino esaten **jaozu** principalmente Maria Santisimari?* (AnzD, 21v)
- (38) *Eguin biar **jaegu** oracino Santuay ere?* (AnzD, 22v)
- (39) *Ceiñec honratzen ditu gurasuac? —Obedecitzen **jaenac**, socorritzen dituanac eta reverenciatzen dituanac* (AnzD, 24r)
- (40) *Ba[y,] Jauna, edoceyn confesorec billatuco **jao** erremediua* (AnzD, 32v)

-eg- (<-(e)ag-?)

- (41) *ardiaz kontu dadukala / esan **zegoat** Gatxi 'ri* (SGK, 16)
- (42) *Bere aldean omen-zeatuk / astoarekin idia; / oetxek biok jango **zegoe** / oeko lasto guztia* (SGK, 35)

2. eranskina: lekukotasun zaharren taulak

1. taula: lekukotasunak aldaeraka eta testu/autoreka (kronologikoki, < 1625)

	AzkPo	BK	DebS	Laz	Sas	AzkOr	RosGut	ErrGut
dio-				✓				✓
die-				(✓) ²³				
digo-		✓	✓		✓	✓	✓	
dige-						?		
diago-	✓					✓		
diage-						✓		
jago-				✓				
jage-								

²² Arejitak eta Alberdik (1985: 24) <guztiai> transkribatu zuten *lectio facillior* eginez, ziurrenik *jagoe* adizkia *izan-* en datibodun formatzat edukitzeak hartaturik (cf. Zuazo, 2012: 126; Aldai, 2013: 22; ziurrenik egungo formetan gertatu da berranalisi edo kutsatze hori). Hala ere, faksimilean argi ikusten da bestela ere testuinguruak eskatzen duen ergatiboko <c>-a.

²³ 'Eman' adierako aditz trinko gisa.

2. taula: lekukotasunak aldaeraka eta testu/autoreka (kronologikoki, 1625 <)

	AmilD	ElgB	SGK	OA	AzkS	AzpGut	LD	AnzD
dio-				✓	✓			
die-				✓	✓		✓	
digo-		✓		✓	✓	✓		
dige-							✓	
diago-			✓ ²⁴	✓				
diage-							✓	
jago-	✓							✓
jage-	✓							✓

3. taula: -g-dun eta j-dun lekukotasunak paradigma barruan²⁵

	hari	haiei
nik	<i>digot</i> (DebS, Sas, RosGut, AzkS, AzpGut) <hr/> <i>jagot</i> (Laz) <i>ñagon</i> (Laz) <i>jaot</i> (AnzD) <hr/> <i>zegoat</i> (SGK)	
hark	<i>digo</i> (Sas, AzkOr, ElgB, OA, AzkS) <i>çigon</i> (RosGut), <i>cigon</i> (OA, AzkS) <hr/> <i>diago</i> (AzkOr, OA) <i>jago</i> (Laz) <i>jao</i> (AnzD)	<i>dige</i> (AzkOr?, LD) <hr/> <i>diage</i> (AzkOr, LD) <i>jage</i> (AmilD), <i>jae</i> (AnzD)

²⁴ Zalantza egin badaiteke ere, testuan esan bezala, nire ustez *diago* erakoekin batera sailkatzekoak dira SGK-ko adizkiak (41-42), erroaren aurrean *e-* baitut, ez *di(g)u*-tik abiatuta esperoko litzatekeen *i-*.

²⁵ *Digo* erakoen kasuan, 1625 arteko guztiak eta, ondoren, *diago* erakoak ere badituzten testuetan agertzen direnak baino ez ditut jaso.

guk		<i>jaegu</i> (AnzD)
zu(e)k	<i>digoçu</i> (Sas), <i>digozue</i> (AzkS) ----- <i>jaozu</i> (AnzD)	
haiek	<i>digoe</i> (BK, AzkOr, OA, AzkS) <i>cigoen</i> (OA) ----- <i>jagoe</i> (AmilD) ----- <i>zegoe</i> (SGK)	

3. eranskina: lekukotasun modernoak (Bähr 1927-1928; Irizar, 1991, 1992; Euskaltzaindia, 2014)

i) Oñati

Orainaldia	3sg DAT
1sg ERG	<i>xa(o)t</i>
2sg (hi) ERG	<i>xa(o)k, xa(o)n</i>
2sg (zu) ERG	<i>xatzu</i>
3sg ERG	<i>xao</i>
1pl ERG	<i>xau(gu)</i>
2pl ERG	<i>xatzue</i>
3pl ERG	<i>xaue</i>

ii) Bergara-Antzuola

Orainaldia	3sg DAT
1sg ERG	<i>jat</i>
2sg (zu) ERG	<i>jatzu</i>
3sg ERG	<i>ja(o)</i>
1pl ERG	<i>jau</i>
2pl ERG	<i>jatzue</i>
3pl ERG	<i>jaue</i>

iii) Legazpi (alokutiboak)

Orainaldia	1sg DAT	3sg DAT	1pl DAT	3pl DAT
1sg ERG		<i>ddao(n)at</i>		<i>ddae(n)at</i>
3sg ERG	<i>ddak, ddan</i>	<i>ddaok, ddaon</i>	<i>ddaok, ddaun</i>	<i>ddaek, ddaen</i>
1pl ERG		<i>ddao(n)au</i>		<i>ddae(n)au</i>

3pl ERG	<i>ddae(k), ddane</i>	<i>ddao(n)e</i>	<i>ddauek~daue, ddauen</i>	<i>dda(n)e</i>
----------------	---------------------------	-----------------	--------------------------------	----------------

Iragana	1sg DAT	3sg DAT	1pl DAT	3pl DAT
1sg ERG		<i>ñao(n)an</i> ²⁶		<i>ñae(n)an</i>
3sg ERG	<i>za(na)n</i>	<i>xao(n)an~ zaoan</i>	<i>xau(n)an ~zau(n)an</i>	<i>xae(na)n ~zae(na)n</i>
1pl ERG		<i>genddo(n)an</i>		<i>gendde(n)an</i>
3pl ERG	<i>za(n)e(n)an</i>	<i>xao(n)an</i>	<i>xau(n)e(na)n ~zau(n)en</i>	<i>xaoe(na)n</i>

iv) Elgoibar (alokutiboak)

Orainaldia	1sg DAT	3sg DAT	1pl DAT	3pl DAT
1sg ERG		<i>jao(n)at</i>		<i>jaoe(na)t</i>
3sg ERG	<i>ja(ra)k, ja(ra)n</i>	<i>jaok, jaon</i>	<i>jauk, jaun</i>	<i>jaoek, jaoen</i>
1pl ERG		<i>jao(n)au</i>		<i>jao(en)au</i>
3pl ERG	<i>ja(r)ek, ja(e)ne</i>	<i>jaoek, jaone</i>	<i>jauek, jaune</i>	<i>jaoek, jaoene</i>

Iragana	1sg DAT	3sg DAT	1pl DAT	3pl DAT
1sg ERG		<i>najauan, najaonan</i>		<i>najauen, najaonen</i>
3sg ERG	<i>ja(na)n</i>	<i>jauan, jaonan</i>	<i>jau(n)an</i>	<i>jauen, jaonen</i>
1pl ERG		<i>giñuan, giñonan</i>		<i>giñuan, giñonan</i>
3pl ERG	-	<i>jauen, jaonen</i>	-	<i>jauen, jaonen</i>

²⁶ Hau da Lazarragaren *ñagon* adizkitik gertuen dagoen lekukotasun modernoa.